

Zk ia	PROPOSAMENAK	GUZTIRA	Aurrekontua	Metatuta (€)
1	5. Ezkiaga pasealekuko zoladura konpondu eta hobetzea	578	230.000 €	230.000
2	19. Lurrean margotutako jolasak jartzea Atsegindegin: Jolas aktiboak sustatzeko imajinazioa pizteko harreman sozialak sortzeko balio dezake eta Plazan ospatzen diren beste ekitaldiak ez ditu oztopatzen	565	1.500 €	231.500
3	17. Landare Tokiko errugbi guneko berrikuntzak: 120 eserleku gehiago jartzea; Bidetxo bat egitea lehenengo zelaitik bigarrenera; eta Zelaia txukun/garbi mantentzeko makinariaren erostea	557	48.000 €	279.500
4	21. Portu auzoan espaloi bat sortu Tuneletik Lonja bitarteko zatian oinezkoentzako babes gehiago izateko	532	20.436 €	299.936
5	14. Kaxkoko eraikin historikoen fatxadak garbi mantentzeko eta ez kaltetzeko txizaren eta graffitiaren kontrako tratamendua ematea	508	10.000 €	309.936
6	8. Herriko hainbat lekutan oinezkoei lehenetsua ematea: Elkano - Nafar kaleko bidegurutzea; Aristizabal - Urbieta kaleko bidegurutzea; Latsunbe kalea -Urbieta kalea eta Marieluts kalea elkartzen dituen bidegurutzea	496	36.575 €	346.511
7	3. Biteriko areto nagusiko ekipoak errebisatu eta behar izanez gero berri: soinu-ekipoa nahasketa-mahaia proiektzio ekipoa argiztapena mikrofonoak...	465	25.000 €	371.511
8	2. Argiztapena hobetzea Florida auzoaren goiko errepidean (99 portaletik 165era)	449	8.000 €	379.511
9	26. Sorgintxulo auzotik Jauregi eta Oronarantza doan bidea argizatzea oinezko asko ibiltzen baita bertatik eta ez dago argiztapenik	447	14.325 €	393.836
10	23. Sagastialde auzoko argiteria hobetzea	430	6.000 €	399.836
11	22. Portuko tunelaren sarreran oinezkoak babesteko baden bat jartzea	393	1.200 €	401.036
12	18. Estrechamiento aceras Victor Hugo kalea y Larramendi kalea 13 15 y 17 para habilitar más aparcamientos	390	20.000 €	421.036
13	16. Kultura arloan diru partida handitzea haurrentzako ekintza kultural gehiago antolatzeke batez ere 2-6 urte arteko umeentzako	382	8.000 €	429.036
14	30. Urumea - Gay Murreko eraikinaren atzean Sandiusterrri kalera igotzeko dagoen malda eta irisgarritasuna hobetzea	371	35.840 €	464.876
15	7. Hernaniko bi parke 0-3 urte arteko haurrentzat egokitzea. Egungo materialaz gain katuka dabiltzan haurrak arrastaka zutik jartzen hasi berriak... beste modu batera antolaturiko espazioak elementu naturalekin sortuak plastiko gutxiagorekin...	371	20.000 €	484.876
16	6. 0-5 urte arteko haurrekin egoteko espazio itxi bat egokitzea Udalak: Haurren arteko harremanak sendotzeko gurasoen arteko harreman sarea sortzeko kezkek konpartitu eta soluzioak denon artean bilatzeko (formazioa hitzaldiak tailerrak...)	358	6.000 €	490.876
17	28. Udalak Kaxkoko eraikin bat erostea eta berri ondoren gazteen alokairu sozialerako bideratzea	351	180.000 €	
18	29. Udalak musika ekipo bat erostea (bi bafle eta mikrofono bat) bai udal ekimenetarako baita herriko eragile sozial ezberdinek antolatzen dituzten ekimenetarako ere	350	1.000 €	491.876
19	24. Saharako kazetari talde batentzat material informatikoa erosi eta bidaltzea (argazki kamera ordenagailu portatila eta memoria txartelak) bertan bizi duten egoeraren berri informatzeko helburuarekin	337	2.500 €	494.376
20	13. Karmelo Labaka kalearen erdialdean zebrabide berri bat egitea	281	2.000 €	496.876
21	4. Etxeberriko7. eraikinaren atzeko eskaileratan malda bat egitea irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko	264	56.270 €	
22	25. Santa Barbara auzoaren sarrerako aldapan (harrobirako bidean) harrizko euste-horma bat eraikitzea lur-jauziak ekiditeko	258	8.065 €	504.941€
23	9. Hezkidetza egitasmo bat martxan jartzea Hernaniko ikastetxe guztietako 2 urteko geletako haur guraso eta hezitzaileekin tratu onak eta sexu hezkuntza sustatzeko	250	11.000 €	
24	27. Sorgintxuloko plaza eta inguruetan hondakin ontziak jartzea	235	665 €	
25	15. Kiroldagiko kafetegi inguruan takilak ipintzea (16 takila) gurasoek seme-alaben gauzak utzi ahal izateko	225	2.500 €	
26	32. Zikuñagako Ikastetxearen beheko aterpea ixtea edo pertsianak jartzea haize boladetatik eta euritik babesteko	224	7.200 €	
27	10. "Ipuin kontaketa" maiztasun handiagoarekin eta asteko egun ezberdinetan antolatzea urtean 6 saio gehiago antolatuaz	223	6.900 €	
28	12. Karabelgo parkeko lurra aldatzea bertako goma eta egurra berrituz	200	39.000 €	
29	11. Acondicionar una mesa de ping pong de hormigón en el barrio de Karabel	167	1.600 €	
30	1. Aldibereko itzulpenak egiteko interpretatzailearen maleta erostea: hitzaldi edo emanaldietan euskaraz ulertzen ez dutenentzat itzulpena egin ahal izateko	146	10.000 €	
31	20. Martindegiko Bizilagunen Elkartearen lokalaren urbanizaziorako (obra amaitzeko) diru kopuru bat jasotzea aurrekontuan	146	20.000 €	
32	31. Zikuñaga auzoan bizikletentzako aparkaleku estalia egitea	92	6.400 €	

\*Naranjaz markatutako zenbakia duten proposamenak izango dira 2016ko Udala Aurrekontuak jasoko dituenak.



2016ko Udal Aurrekontuak herritarrek eztabaidatu eta zehazteko prozesua 2015ko udaberrian jarri genuen martxan. Uda aurretik herritarrek proposamenak egiteko aukera izan zuten bai gaien arabera saioetan, bai internet bidez eta baita auzo elkarleen bidez ere. 136 proposamen jaso ziren orotara. Ekainean, 136 proposamen horiek teknikarien eskuetan geratu ziren, eta proposamen bakoitzaren balorazio ekonomiko eta teknikoak egin zituzten. Prozesuaren bultzatzaile izan diren alderdi politikoak ere ados jarri ziren balorazio politikoak egiterako orduan. 55 proposamen geratu ziren aurrera egiteko (proposamen batzuk egitea aurreikusia zegoen, beste batzuk 500.000€ak gainditzeko zituzten, batzuk ez ziren Udalaren eskumena, etab.). Balorazio horien ondotik, irailean egindako 3 saio irekitan, herritarrek 55 proposamen horietatik 32 lehenetsi zituzten bi balorazio irizpideren baitan: (1) eguneroko bizitza errazten duten proposamenek balorazio hobea jaso zuten, eta (2) proposamenaren kostua (ekonomikoa, ekologikoa, humanoa...) eta onura orekatua zuten proposamenak baita ere.

Azkenik, 32 proposamen horietatik 10 hautatzeko aukera izan dute Hernanin erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek. Horretarako hiru modu izan dituzte: auzoetan (Portu, Florida - Etxeberri, Zikuñaga, Sorgintxulo, Kaxko, Karabel, Latsunbe Berri eta Lizeagan) egindako saioetan parte hartuz, udaleko web orrian jarritako galdetegia betez edota etxeetara bidalitako esku orrien bitartez.

Guztira 1.118 baliozko bozka jaso dira, eta ondorengo orrian ageri da proposamen bakoitzak jaso duen puntuazioa; halaber, baita 2016ko Udal Aurrekontuan txertatuko diren proposamenak ere.